

Hipoteken Estatistika
2024ko otsaila. Behin-behineko datuak.

Nafarroako etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua % 64,6 igo da otsailean, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta batez besteko zenbatekoak % 20,1eko jaitsiera izan du

2023ko apirilaren 24a


Etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua % 88,8 igo da aurreko hilabeterekin alderatuta

ETXEBIZITZEN GAINEKO HIPOTEKAK

Kopurua. Nafarroako Foru Komunitateko jabetza-erregistroetan inskribatutako etxebizitzaren gaineko 706 hipoteka eratu dira otsailean, hau da, 2023ko hilabete berean baino % 64,6 gehiago. Aurreko hilabetearekin alderatuta, hileko aldakuntza-tasa % 88,8 igo da.

1. GRAFIKOA

Etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua Nafarroan



Iturria: Nastat, INEren Hipoteken Estatistikan oinarrituta.
Behin-behineko datuak 2023ko martxotik aurrera.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

Mailegatutako kapitala, guztira. Etxebizitzen gaineko hipoteketarako mailegatutako guztizko kapitala 68,2 milioi eurokoa izan da Nafarroan otsailean, eta, beraz, % 31,5eko igoera erregistratu da 2023ko hilabete berarekin alderatuta.

1. TAULA

Etxebizitzen gaineko hipotekak Nafarroan. 2024ko otsaila


	Guztira	Urteko metatua	Tasa (%)		
			Hilekoa	Urtekoa	Urte hasieratik
Etxebizitza hipotekatuen kopurua	706	1.080	88,8	64,6	18,4
Mailegatutako kapitala (milaka eurotan)	68.211	115.164	45,3	31,5	-0,9
Batez besteko zenbatekoa (eurotan)	96.616	111.079	-23,0	-20,1	-12,6

Iturria: Nastat, INEren Hipoteken Estatistikan oinarrituta.
Behin-behineko datuak

Batez besteko zenbatekoa. Nafarroan, etxebizitzen gaineko hipoteken batez besteko zenbatekoa % 20,1 jaitsi da erreferentziako hilabetean, aurreko urteko otsailarekin alderatuta, eta 96.616 eurokoa da.

2. GRAFIKOA

Etxebizitzen gaineko hipoteken batez besteko zenbatekoa Nafarroan (milaka eurotan)



Iturria: Nastat, INEren Hipoteken Estatistikan oinarrituta.
Behin-behineko datuak 2023ko martxotik aurrera.

Espainia. Etxebizitzen gainean eratutako hipoteken kopuruak % 3,8ko igoera izan du otsailean, 2023ko aldi berarekin alderatuta. Hipoteka horien batez besteko zenbatekoak % 5,2ko jaitsiera izan du, eta 136.145 eurora iritsi da.




FINKA KOPURU OSOAREN GAINEKO HIPOTEKAK

Kopurua. Guztira, jabetza-erregistroetan inskribatutako finken gaineko 859 hipoteka eratu dira Nafarroan erreferentziatzeko hilean (539 izan ziren aurreko urteko hil berean). Haietatik, 856 hiri-finkak dira, eta 3 landa-finkak. Hiri-finka horien artean 706 etxebizitza, 7 orube eta 143 “beste hiri-finka batzuk” daude.

3. GRAFIKOA

Hipotekak guztira, finken izaeraren arabera. 2024ko otsaila.




Iturria: Nastat, INEren Hipoteken Estatistikan oinarrituta.
Behin-behineko datuak

Mailegatutako kapitala, guztira. Foru Komunitatean eratutako hipoteka berrietarako mailegatutako kapitalaren guztizkoa % 11,6 igo da 2023ko hilabete berarekin alderatuta, eta 97,7 milioi eurora iritsi da.

4. GRAFIKOA

Hipoteketarako mailegatutako kapitalaren banaketa, finken izaeraren arabera. 2024ko otsaila



Iturria: Nastat, INEren Hipoteken Estatistikan oinarrituta.
Behin-behineko datuak

Batez besteko zenbatekoa. Nafarroan otsailean eratutako hipoteken batez besteko zenbatekoa 113.792 eurokoa izan da, hau da, 2023ko aldi berekoa baino % 30,0 baxuagoa.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Hipoteken Estatistika. 2024ko otsaila.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00